

Heinz Himdorf / EPA



MER hondakinen errausketa

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak okela irinak erretzearen alde egin dute, tratamendu hoberik aurkitzen ez den bitartean bederen

JON TORRE

Azkenengo hilabeteetan Europako zenbait herritan Creutzfeld-Jakob izeneko gaitzak lagatako sarraskia ikusi besterik ez dago: animalien sekulako ondorioak eragiteaz gain, *behi eroen* kasu hauen toxikazio biologikoak gizakiongan ere eritasunak sortzeko arriskua ekar lezake gerora. Krisialdi honen alderdi azpimagarriena bat hondakin mota berri bat sortu izana da, eztaba-dagai bihurtu baita berarekin zer egin.

BEE izeneko gaitzak (Behien Entzefalopatia Espongiformea), osasun edo elikagai sistemaren gaineko krisialdia ekartzeaz gain, konfiantza publikoa ere kolokan jarri du. Horixe da Autonomi edo Estatu Administrazioak benetan kezkatzen dituen. Konfiantza galdua berreskuratu nahian dabilzan gobernuak nola edo hala ari dira aurre egiten *behi eroen* ehunka kasuek sorturiko hondakinei. Espainiako Gobernuak, esate baterako, bi erabaki garrantzitsu hartu ditu: urtarrilaren 11n Oficemen erakundearekin —zeinak porlan enpresak biltzen dituen— hartutako akordioak haragi-irinak porlan en-

presetan erretzea du helburu; eta, bestetik, otsailaren 16ko 4/2201 Errege Dekretu-legearen ezarpena. Aipatu araua garrantzi handikoa da; izan ere, ezabatu egiten ditu gizarte elkarrekin, bertoko erakundeek eta, hein handi batean, autonomia erkidegoek hondakin hauek errausteari buruz zituzten eskumen guztiak.

Erabateko neurri hauek hartu dituztenak, «krisialdi egoera» honetatik ahalik eta lasterren alde egin nahian, kontzeptu desberdinak nahasi nahian dabilza (animalia kutsatuak, okela irinak, BEE ez diren gaitzek hildako abereak...) gai horiei guztiei tratamendu bera aplikatzearen: irin bihurtu, porlan enpresetan erre ahal izateko.

Osasunerako Mundu Erakundeak, Kataluniako Gobernuak eta beste hainbat erakundek zalantzan jartzen dute 133 graduko esterilizazioa priorio gogorak garbitzeko gauza ote den. Bestalde, hondakin mota berri honen arriskuak sailkapen zehatz batean agertu behar du, hala agintzen baitu uztailaren 20ko 833/1988ko Hondakin Arriskutsuen Araudiak. Une honetan, okela irinak hondakin ez-arriskutsu moduan ari dira kontuan hartzen, baina honda-

Ez dago nazioarteko edo estatu mailako agiririk errausketa abere irinen tratamendu bakarra dela adierazten duenik

kin hauen ezaugarrien azterketa sakonak egiteke daude oraindik.

Oficemen elkarteko zuzendari nagusi Rafael Fernandez Sanchezen ustez, «Espainiako Gobernuak Nekazaritza Sailak baimendutako bederatzi plantetan priorioak guztiz suntsiturik geratzen dira esterilizazio sistemari esker». CCOO sindikatuak, aldiz, esterilizatzeko tenperatura 170 gradura igotzea proposatu du autoklabe deritzon baldintzak bermatu ahal izateko. Beren ustez, «arriskurik ez dagoelako ziurtasuna izan arte, okela irinak hondakin arriskutsutzat jo behar dira, eta Administrazioa zuhur jokatu beharrean dago».

Hego Euskal Herriko okela irinen egoera

Ez dago nazioarteko edo estatu mailako agiririk errausketa abere irinen tratamendu bakarra

dela adierazten duenik. Osasun iturriek, oster, priorio toxikorik gabeko okela irinak lortzeko irtenbideak MER izeneko gaien birrintzea, deshidratazioa eta esterilizazioa direla aipatzen dute. 4/2201 Dekretu/Legeak «irinen

balorapen energetikoa hobesten du zabortegetan emandako tratamendua baino». Danimarkako Nekazaritza Ministerioaren arabera, dioxinen isurketa 16 aldiz handiagoa da okela irinak erretzen direnean. Hondakinek arriskurik ez dutela egiaztatutakoan, ematen du irtenbide egokiagoak direla irinen konpostajea, ongarri moduko erabilpena edo biometanizazioa, erraustea bera baino.

Beste alternatiba garbiagoak eta egokiagoak izan arren, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak MER hondakinak erretzearen alde egin dute. Nafarroan Gobernuak eta Iruñeko Mankomunitateak bat egin zuten La Protectora zabortegetan ekoiztutako irinak zeropeko 40 graduko tenperaturan izozteko. Miguel Sanzek otsailean adierazi zuenaren arabera, bere gobernu lanean ari da, Olaztiko

laburrean

Urkiolako harrobien kontrako mendi martxa arrakastatsua

Duela bi aste, Mañaria Bizirik eta Alpino Tabira elkarteek Mutxate, Zallobenta eta Amantegi harrobietako lanak behin betiko geldiarazteko eskatu zuten, bigarren urtez. Gogoratu behar da Eskubaratz, Untzillatz eta Mugarra mendien magaletan aritzen diren enpresa hauek beren jarduerarekin segitzen dutela Urkiolako Parke Naturaleko eremuan egon arren. Mendi martxan ehunka mendizalek hartu zuten parte, eta ondoren ekitaldi errebindikatiboa izan zen Mañariko plazan.

AHTk kaltetutako zenbait udalerri proiektuaren aurka azaldu dira

Hil honen 5ean Elorrio, Abadino, Anoeta, Aramaio, Oiartzun, Ezkio-Itsaso edo Eskoriatza udalerriek errekurtsioa aurkeztu zuten *Euskal Y* proiektuaren kontra. Ekimen juridikoak AHTren Ingurumen-Eraginaren Azterketa zein Espainiako Sustapen Ministerioaren ebazpenaren arka egiten du, eta AHT Gelditu! Elkarlanaren aktibitatearen ondoriozkoa da. Aipatu udalerriek arrazoi honengatik erabaki dute plataforma honetan parte hartzea: «Gure herriaren geroaren ikuspuntutik kezka handia sortzen digulako proiektu honek».

Itoitz aldeko zuhaitz botatzeak gelditzeko esku-titzak

Itoizko urtegiako obren ondorioz Irati eta Urrobi ibaien ibarretan zuhaitzak botatzen ari dira. Nafarroako Gobernuarendako lanean ari den enpresa batek pagoak, haritzak eta arteak botatzeari ekin dio, besteak beste. Zuhaitz mozketak zein urtegiako obrak gelditzeko eskatzen duten zenbait orri banatu dira ondorengo helbide honetara igortzeko: Nafarroako Gobernuaren lehenakiritza. Karlos III.aren etorbidea, 2. Iruñea. Orriek ez daramate sinadurarik.

Portland enpresarekin, lehenbailehen irinak erretzeko planta martxan izan dadin. Instalazio horiek jartzeak 50 milioi pezeta inguruko kostua izango du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru porlan enpresatan (Arrigorriagako eta Añorgako Cementos Rezola, eta Cementos Lemona) abere irinak erregai gisa erabiltzeko plana jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak. Planta horietara eraman aurretik, Barakaldoko Seberia Bilbaina eta Urtuellako Manuel García Mendoza enpresak MER izeneko gaiak irin bihurtzeaz eta pilatzeaz arduratu dira.